

gaurko filmak

- El sol bajo la tierra** ●
Zuz.: Aldo Florio, 96 m. Itat. 1971. **18:10 ETB2**
- Le Corniaud** ★
Zuz.: Gérard Oury, 110 m. Fran. 1964. **20:55 TF1**
- Cómo ser John Malkovich** ★★★
Zuz.: Spike Jonze, 89 m. AEB. 1999. **22:00 C+(e)**
- Vampiros de John Carpenter** ★★
Zuz.: John Carpenter, 104 m. AEB. 1998. **22:15 ETB2**
- Les Accusés** ★★★
Zuz.: Jonathan Kaplan, 110 m. AEB. 1988. **22:40 F2**
- Conte de la folie ordinaire** ★
Zuz.: Marco Ferreri, 85 m. 1981. **00:55 Arte**
- Avant la nuit** ★★
Zuz.: Julian Schnabel, 125 m. AEB. 2000. **01:05 C+(f)**
- Cerco de fuego** ★
Zuz.: Andrew V. McLaglen, 97 m. AEB. 1971. **02:00 La2**

VAMPIROS DE JOHN CARPENTER
★★ ETB2 - 22:30

Zuz.: John Carpenter. Akt.: James Woods, Daniel Baldwin, Sheryl Lee.
Beldurrezko zinema modernoaren aitabitxia da John Carpenter. *Halloween* klasikoa da horren adierazgarri. Oraingo honetan, James Woods basaren esanetara dagoen banpiro-ehiztari talde baten gorabeherak dakarzkitu. Woods eta haren lagunak Valek banpiro ankerrenen bila dabilta New Mexicoko basamortuan. *Assault on Precinct 13* apartan bezalaxe, hemen ere Hawksen western iradokitzaileak omentzen ditu Carpenterrek, beldurrezko generoa eraberrituz. *Gore* gaindosiak eta elkarriketa hutsalek kalte egiten dioten arren, entrete-nigarria dela ezin ukatu.

LES ACCUSES
★★★ F2 - 22:40

Zuz.: Jonathan Kaplan. Akt.: Kelly McGillis, Jodie Foster, Bernie Coulson, Leo Rossi.
Maitasuna krudela da oso Sarah bakartiarekin. Azken porrotaren ostean, alkoholean leunduko du bere tristezia. Taberna batean, gazte talde batek



John Cusack *Como ser John Malkovich* filmean.

Surrealismo iluna

COMO SER JOHN MALKOVICH ★★★ **C+(e) - 22:00**

Zuz.: Spike Jonze. Akt.: John Cusack, Cameron Diaz, Catherine Keener, J. Malkovich.

Beastie Boys, Sonic Youth, REM, Bjork, Weezer eta beste hainbat musika talde interesgarrirentzat zuzendu zituen bideoklip irudimentsuek zinemaren atea ireki zizkioten Spike Jonze gazteari. Hala, *Being John Malkovich* surrealista izan zuen estreinako filma. Txotxongiloak dotore maneiatzen dituen talentu handiko titiriterua da Craig. Jendeak, ordea, ez du haren artea aintzat hartzen, eta bizitzak zentzurik ez duela pentsatzen hasia da mutila. Hori guztia gutxi balitz bezala, emaztearekin duen maitasun harremana ere egunerokotasunaren biktima bihurtu da. Etsirik, administrari lan bat onartuko du enpresa bitxi batean. Lasterrera, John Malkovich aktorearen burmuinera daraman tunel ilun eta umel bat topatuko du bere bulegoak ezkututzen duen ate sekretu baten atzean. Surrealismo ilunez tintatutako komedia mikatza da. Irudimentsua, fantastikoa, apurtzailea, zirikatzailea eta ausarta oso. Maisulanaren kostalde labartsura iritsi aitzin, baina, hondoratu egiten da; existentzialismo plastiko batez bere irudimen iraungikorra ezkutatu ezinik. Hala eta guztiz ere, oso proposamen atsegin eta kilikagarria da.

bortxatu egingo du, bezeroen algaren artean. Sexu erasoaren biktima, ordea, errudun bilakatuko da. Bortxaketa Sarah-k berak probokatu duela iradokiz umiliatuko baitute neska. Haren izen ona garbitu

eta benetako errudunak zigortuak izan daitezen borrokatuko da Katheryn abokatua. Jodie Fosterrek Oscar saria bereganatu zuen bere interpretazio zirrargarriarengatik. Drama gordina da.

Iñaki Lazkano

AVANT LA NUIT

★★ C+(f) - 01:05

Zuz.: Julian Schnabel. Akt.: Javier Bardem, Olivier Martinez, Johnny Depp, Sean Penn.
Reinaldo Arenas idazle kubatarraren bizipen mitatzak islatzen ditu Julian Schnabel pintore estatu-batuarrak bere bigarren filmean. Arenasek Kubako erregimenaren jazarpena nozitu zuen, homosexualitatearen gain, castismoarekin oso kritikoa izan zelako. Schnabelen filma erdipurdikoa da, benetan. Narrazio estilo egoki bat aurkitu ezinik, aspergarri egiten da usu. Gainera, ez ditu behar bezala garatzen ez homosexualitatearen gaia, ezta Arenasen unibertso ideologiko eta sentimental ere. Javier Bardem aktore espainiarraren lana, ordea, bikaina da.

CERCO DE FUEGO

★ La2 - 02:00

Zuz.: Andrew V. McLaglen. Akt.: James Stewart, George Kennedy, Anne Baxter.
Zinema artisau apal bat besterik ez da Andrew V. McLaglen. *Chisum* bezalako western handi bat zuzentzeko gai izan bazen ere, hala-moduzko film komertzialez josita dago haren filmografia irregularrak. Hizpide dugun filma ez da salbuespen bat, prexixi-prexixi. Kartzelan urte luzez egon ostean, kalera irtengo da Mattie. Depresioaren sasoi latza da, baina itxaropentsu dago gizona. Bergizarte-ratzeko xedearekin, negozio bat jarriko du, beste bi preso ohirekin batera. Ezin izango da, baina, bakean bizi. Aktore taldea aparta den arren, filma nahiko eskasa da.

ETB-1

- 06:55: Tik tak circus.
- 07:30: Betizu.
Hartz txiki.
Doraemon, katu kosmikoa.
Hirukiak II.
Betizu taldea.
- 09:15: E-klipse@.
- 09:40: Hasiberriak.
- 10:10: Bidaide.
Egun argitan.
- 11:00: Sorginen laratza.
- 12:15: Ur lasterretan behera.
- 12:40: Azken boli zalduna.
- 13:35: Betizu.
Shin Chan.
- 14:00: Gaur Egun.
Albistegia.
- 14:45: Goenkale.
- 15:20: Gag gag.
- 15:45: Bidaide.
Elefanteen indarra.
- 16:40: Travel notes.
- 17:05: Oinak izarretan.
Sahara: hutsetik haitzera.
- 17:40: E-klipse@.
- 18:00: Iparraldearen orena.
- 18:05: Tik tak circus.
- 18:15: Betizu.
Katutxakur.
Doraemon, katu kosmikoa.
Betizu zuzenean.
Shin Chan.
Betizu taldea.
- 20:28: Gaur egun.
Albistegia.
- 21:05: Bertatik bertara.
- 21:45: Goenkale.
- 22:25: Bexamela.
- 00:10: Bizitzaren baitan.
- 00:35: Esanak esan.
- 01:05: Bakarrik edo...
- 03:10: Bertatik bertara.
- 03:45: E-klipse@.
- 04:20: Euskal Herritik.
- 04:50: 1 bitan.
- 05:30: Amama sukaldari.
- 05:45: Herri musika sorta.
- 06:00: Ikusgela.

TVE1

- 06:00: Canal 24 horas.
Albistegia.
- 07:30: Telediaro matinal.
(09:20) Los desayunos de TVE.
Gonbidatua: Juan Fernando Lopez Aguilar.
- 10:15: Saber vivir.
- 11:00: Por la mañana.
Asi son las cosas.
La cocina de Karlos Argiñano.
Operacion triunfo.
- 14:00: Informativo Territorial.
Albistegia.
- 14:30: Corazón de otoño.
Anne Igartiburuk aurkeztutako saioa.
- 15:00: Telediaro 1.
Albistegia.
- 16:00: Eguraldia.
- 16:05: Geminis.
Telesaila.
- 16:45: Secreto de amor.
Telesaila.
- 17:50: Cerca de ti.
Oscar Martinezek aurkeztutako magazin saioa.
- 18:50: El rival mas debil.
Lehiaketa.
- 20:00: Gente.
Pepa Buenok eta Sonia Ferrerrek aurkeztutako magazina.
- 21:00: Telediaro 2.
Albistegia.
- 21:55: Egualdia.
- 22:00: Un juguete, una ilusion.
- 01:30: Telediaro 3.
Albistegia.
- 02:00: La banda de los Perez.
Telesaila.
- 03:00: Canal 24 horas.

ETB-2

- 06:50: Palabra de ley.
- 07:20: Del pais de los vascos.
- 07:55: Clasicos en serie.
La casa de la pradera.
Los angeles de Charlie.
- 09:30: Forum. Gonbidatua: Adela Perez.
- 10:00: El punto. Gonbidatua: Itziar Irazabal.
- 10:30: Pacific blue.
Telesaila.
- 12:15: La cocina de Pedro Subijana.
- 12:30: Doc.
- 13:30: Euskadi directo.
- 13:55: Date el bote.
Lehiaketa.
- 14:58: Teleberri.
Albistegia.
- 15:45: Lo que faltaba.
Magazina.
- 18:10: Zinema.
El sol bajo la tierra
Zuz.: Aldo Florio.
Akt.: Fabio Testi, Massimo Serato. 1971.
- 20:00: Esta es mi gente.
Magazina.
- 20:58: Teleberri.
Albistegia.
- 21:45: La noche de...
(22:15) **Vampiros de John Carpenter**
Zuz.: John Carpenter.
Akt.: James Wood, Daniel Baldwin. 1999.
- 00:50: Senderos misteriosos.
- 02:40: Mike Hammer.
- 03:25: Esta es mi gente.
- 04:10: LQF mojate.
- 06:10: Forum.

A3

- 07:00: Buenos días, España.
(08:20) Spiderman.
(09:15) El primer cafe.
- 10:30: A plena luz.
Pedro Piqueras eta Yolanda Alzolak aurkeztutako magazin saioa.
- 13:30: Ahora express.
- 13:55: Informativos territoriales.
Albistegia.
- 14:30: Los Simpson.
Marrakzi bizidunak.
- 15:00: Noticias 1.
Albistegia.
- 16:00: Sabor a ti.
Ana Rosa Quintana eta Antonio Hídalgo aurkeztutako magazina.
- 19:00: El diario de Patricia.
Patricia Gaztañagak aurkeztutako magazin saioa.
- 20:00: Pasapalabra.
Lehiaketa.
- 21:00: Antena 3 Noticias 2.
Albistegia.
- 22:00: Un paso adelante.
Telesaila.
- 00:00: Mira tu por donde.
Paula Vazquez eta Liborio Garcia aurkeztutako saioa.
- 01:30: Antena 3 Noticias 3.
Albistegia.
- 02:00: The pretender.
Telesaila.
- 02:45: Televanta.
- 04:30: Hermanos de leche.
Telesaila.

irratia



BILBO HIRIA IRRATIA. Albisteak, musika eta elkarriketak izango dira goizeko 08:00etan *Nagiak bota ahala* saioan. 10:00etan, *Mondo Botxo* magazinaren barruan, Bizitzeko elkarteak drogen legezatzeari buruz antolatutako jardunaldien berri emango du Martin Barriusok. Joseba Bidaizarra sendagileak, berriz, gaiaren beste ikuspegi bat emango du. Saio horretan bertan, Durango azokaren prestaketen azken ordua emango dute Gerediaga elkarriketakoek. 16:00etan, *Baskistan* munduko herri musika izango da entzungai. Eta 20:00etan, rock gogorra iritsiko da *33 kana* programa berrian.

RADIO EUSKADI. EAJko diputatu ohi Emilio Gebara elkarriketatuko dute goizeko 09:30 aldera, *Boulevard* irratisaioan. Gebara PSE-EEren zerrendetan izango da datozen hauteskundeetan. *Boulevard magazine*-n, bestalde, drogen legezatzeari buruz ariko dira Virginia Montañes adituarekin. Euskararen Nazioarteko Eguna dela eta, Euskal Idazleen Elkartearen lehendakari Tere Irastorza eta Euskara Kultur Elkargoko Jose Luis Mendizarekin hitz egingo dute. Unitate ibiltaria Elizondora joango da, Jorge Oteiza museo etnografikoaren lanak nola doazen jakiteko.